

Jardunaldien amaiera Batzoki elkarte

Ostiral honetan 19:00tan hasita Igor Zalakainen erakustaldia izango da Batzokia elkarte. Eta larunbatean parte hartzaile guztiekin afaria egingo da, 20:30etan hasita.

Afariarekin amaituko dira, beraz, lehen jardunaldiak?

Joxe Manuel Oiartzabal. Bai. Beharbada, kontuak egin eta gure arteko balorazioa egingo dugu. Udaberrian elkartearekin batera hausnarketa egingo dugu, landu beharrekoak lantzeko.

Jarraipena izango du beraz, ekimenak?

J.M.O. Beno, ikusiko dugu zertaraino iritsi daitekeen jardunaldi hauen emana. Oraingoz, emaitza ikusita, jarraitzearen aldekoak gara. Batipat elkarre guztietakoak gustora agertu direnean. Hori da gure inpresioa eta hasiek guztiek ere horixe adierazi digute.

Asmatu izan duzuen sentsazioa al duzue?

J.M.O. Baietz esango nuke. Jardunaldietan zehar moldaketak egin behar izan ditugu, nahiz eta printzipalena lotuta zegoen.

Sukaldarien artean bitxia izan da, aurrez aurre topo egitean oso jende hitzuna den batzuri gertatu izan zaie jardunaldietara iritsi eta kamarak ikustean *moztuta* bezala azaldu direla. Baina, orokorrean, ondo.

Ikusleen parte hartzea handia izan al da?

J.M.O. Bai, baina egun batetik bestera gorabeherak izan dira. Ostegunetan hortxe ibili gara



Joxe Manuel Oiartzabal.

20-40 bitarte horretan. Ostiraletan, aldiz, 50-60 pertsona inguru. Egun batean 70 pertsona ere bildu zen. Ostiraletan jendearen aldetik parte hartzea handiagoa izan da.

Menuren bat nabarmenduko zenuke?

J.M.O. Den denak. Gauza berriak ikusi ditugu. Azpimarratuko nuke denek ere 4 pertsonentzat afaria prestatzen bazuten ere, 5-6 pertsonak afaldu duten egunak izan direla maiz. Elkartearen izaera horretan isladatzen dela esango nuke.

Zer nola joango da azken eguneko afaria?

J.M.O. Berezia izango da. Bolondres modura, lehen platera Oskar Letamendik egingo du. Eta estimatzekoa da bere parte hartzea. Sofistikatua izango da.

Bigarren platera elkartekok egingo dugu eta postrea Igor Zalakainena izango da.

Bukatzeo, zerbait esan nahiko zenuke?

J.M.O. Parte hartzaile guztiei eta herriko hedabideei zoriak emango nizkieke.

Aurreko ostiral eguerdian inaugurazio ekitaldia egin zen

Mimenditik Dr. Huitzi kalera igogailu berria erabiliz

Andoain herriak mugikortasuna errazteko tresneria mekanikoa txertatzen inbertsio handia burutzen ari da, Lasarte edota Eibar herriak egiten ari diren antzera. Urigaingo, Bazkardoko edota Merkatu plazako eskilara mekanikoak ohiko bilakatu dira andoaindarren artean.

Ildo horretatik igogailu mekanikoa ipini dute Mimendi kaleko 25 eta 27 zenbakien artean, Dr.Huitzi kalera errazago iritsi asmoz. Udal Gobernuaren hitzetan, "Horrelako ekimenekin kalitatezko herrigunea lortzea helburu dugu oinezkoen, ezinduen, adinduen eta haur txikiak dituzten gurasoen beharrei alternatibak eskainiz".

Aurreko ostiral eguerdian egin zen inaugurazio ekitaldia eta bertara Gobernu taldeko eta oposizioko zinegotziak hurbildu ziren.



Andoaingo Alkatea eta hainbat zinegotzi izan ziren igogailuaren inaugurazio-ekitaldian.

Ekitaldiak iraun zuen bitartean herritar bat baino gehiago gerturatu zen alkatearengana, igogailuaren eta auzoan egindako hobekuntzen inguruan hitz egiteko asmoz.



Haur parkea txiki geratu da eta inguruan arriskuguneak daude

Parkea konpontzeko eskaera



Utzikeriak jota dagoen parkea jendez gainezka izaten da.



Arrisku gune nabarmenak daude haurrentzat, parkearen atzekaldean.

Kexati agertu dira Dr. Huitzi kaleko parkeko erabiltzaileak. Gurasoek eskaera idatzi diote Andoaingo Udalari, behar diren neurriak har ditzan. Orain bi urte eta erdi ere beste eskaera egin omen zuten; garai hartan Jose Luis Vela Zerbitzueta-ko zinegotzi-arduradunarekin hitz egin baitzuten. Bi urte eta erdi igaro dira orduz geroztik, eta konponketarik ez egiteaz gain parkearen egoerak okerrera egin duela salatu dute gurasoek. Leku arriskutsua da parkea, ziurtatzen dutenez.

Parkeko hainbat zati aztertzen dute idatzian. Lurra aipatzen dute lehenengo eta behin: pitzadura handi bat ikus daite-

ke erdi erdian, errepidera jaitzen den ezpondaren eraginez, antza denez.

Egurrezko jolastokiak, berri- z, zaharkituak geratu dira. Hausten ari dira, eta ezpala ugari daukate, haurrek min hartzeko modukoak. Txirritak ez dauka babestokirik goiko parteko zati batean, eta gainera inguruko lur eremua ez dago gomaz babestua, porlanezko lurra da.

Okerren zerrendarekin jarraituz, ezponda eta parkea mugatzen duen hesia motz geratzen da eta gainera zuloz josita dago; haurrek trankil-trankil gaintu dezakete hesi hori.

Txistoki aldera doazen eski-

larak ere guraso horien kritikaren jomuga dira. Egoera penagarrian omen daude. Barandaren azpian amildegia geratzen da lehen esan bezala, eta benetakoa da haurrak handik behera erortzeko arriskua; adibidez, haurrak baloia bila hara abiatzen direnean, edo besterik gabe barandari gaizki heltzen badiote.

Eskaileren hormigoizko zoru ez omen da berritu urtetan eta urtetan. Egun euritsuetan denak lokaztuta geratzen dira, leku irristagarria geratuz.

Gurasoek neurriak berehala hartuko diren itxaropena daukate, eta prest agertzen dira udaleko arduradunekin hitz egiteko.

ALBISTE LABURRAK



KATXALIN ELKARTEA KALEAN, DIRU-BILKETAN

Zumea plazaren inguruan Kattalin emakume elkarteak bularreko minbiziaren nazioarteko egunaren harira dirubilketa egin zuen herrian. Gaixotasunari aurre egiteko informazioa zabaltzeko aukera ere baliatu zuten.

25 bat emakume irten ziren kalera, joan den larunbatean. Bidean topatzen zituzten herritarrei paparrean xingola arrosa jarri, eta emakumeei eragiten dien gaixotasun zehatz horien aurkako diru bilketa egin zuten, eguerdi partean. Argazkian, Izaskun eta Estrella elkartekideak ageri dira.